



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko maiatzaren 16a

63. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, Nafarroako 2019- 2025 Desgaitasun Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiko bulegoburu eta Uharteko Udaleko eta Esteribarko Udaleko Gizarte-zerbitzuen Mankomunitateko lehendakariaren ordainsariei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Tokiko Polizia daukaten toki-entitateek segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuari igorri beharreko informazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Kideak programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Oltza Zendea eta Ollaranen zuntz optikoa hedatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, “Girando por Navarra/Bira Nafarroan Barna” programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Administrazioan telelana arautzeko foru dekretuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duen maiatzaren 10eko 8/2021 Foru Legeak ukitzen dituen abeltzaintzako instalazioen eskariei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Iruñeko espetxean mediku eta erizain berariazkoek duten arreta-ordutegiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, psikiatra batek, psikologo batek eta osasun mentaleko erizain espezialista batek osatutako talde bat Iruñeko espetxeko osasun arretara gehitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Iruñeko espetxeko presoek osasun arretan izandako eta izanen diren hobekuntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, mediku erretiratuen kontratazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, bularreko eta koloneko minbizien baheketa-programetan izandako atzerapenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

- Galdera, Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialaren patioan eginiko pintadei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, eutanasia arautzen duen maiatzaren 24ko 3/2021 Lege Organikoak aipatzen duen objektoreen erregistroa sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, 2005etik 2020ra bitartean Nafarroako administrazio publikoetan izandako langileei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako erizaintzako kontsulta ez-presentzialei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako medikuntzako kontsulta ez-presentzialei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzari buruzko Ekintza Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Iruñeko osasun-etxe batzuetan telefonogune berriak paratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzan Internet bidezko hitzordu-eskaera egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzarako hezitzaileak kontratatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, Iruñeko Osasun Barrutiko Oinarrizko Osasun Laguntzako kudeatzaile berriaren helburu eta proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, Tuterako Osasun Barrutiko kudeatzaile berriaren helburu eta proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako 2019- 2025 Desgaitasun Planari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako 2019- 2025 Desgaitasun Planari buruz Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2022ko urtarrilaren 28ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak zenbait galdera egin ditu Nafarroako 2019-2025 Desgaitasun Planari buruz (10-22/PES-00016). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

2020. urtean egin zen 2019-2025 Desgaitasun Planaren lehen ebaluazioa. Lehen txosten horretan aztertu zen zenbateraino zeuden gauzatuta 2019. urterako aurreikusitako jarduketak, baina ebaluazioak zenbait baldintza eta muga izan zituen, COVID-19aren pandemiako une kritikotatik egin zelako. Horrek, gainera, funtsezko eragile

batzuek ebaluazioan parte hartzea baldintzatu zuen. Ebaluazio hori eta departamentuko beste plan batzuen ebaluazioa kontuan izanik, erabaki zen urtero egitea plan operatiboak, Nafarroako Desgaitasunaren Kontseiluarekin adostuak, egin beharreko ekintzak lehenesteko eta jada egiten ari diren ohiko jarduketan aldean bestelakoak direnak nabarmentzeko, nahiz eta dagoeneko planean bilduta egon.

2021eko Plan Operatiboan jasotako ekintzak, Eskubide Sozialetako Departamentuak gauzatu beharrekoak, 21 izan ziren, gehi arreta goiztiarreko berariazko plan operatiboan sartu ziren 16ak. Une hauetan 2021eko Plan Operatiboaren jarraipena egiten ari da.

Urte amaierarako aurreikusita dago 2019-2025 Desgaitasun Planean jasotako neurrien lorpen mailaren balorazioa egitea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2022ko martxoaren 16an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiko bulegoburu eta Uharteko Udaleko eta Esteribarko Udaleko Gizarte-zerbitzuen Mankomunitateko lehendakariaren ordainsariei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiko bulegoburu eta Uharteko Udaleko eta Esteribarko Udaleko Gizarte-zerbitzuen Mankomunitateko lehendakariaren ordainsariei buruzkoa. Galdera 2022ko otsailaren 11ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak informazio eskaera egin du (PES-00034). Hona horri buruz informatu beharrekoa:

Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren erregistroan ez da inolako idazkirik jaso interesdunarengandik edo Uharteko Udaleko eta Esteribarko Udaleko Gizarte-zerbitzuen Mankomunitatetik.

Bestalde, esan behar da Crespo San José jaunak Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiko Idazkaritza Bulegoko burutza lanaldi eta arduraldi hauek dituela: urtean 1.592 orduko lanaldi orokorra arduraldi eskusiborik edo bateraezintasuneko araubiderik gabe. Azkenik, nabarmendu nahi dut Crespo jaunak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan duen lanpostuaren ondorioz jaso dituen ordainsarien berri baino ez dakiela zuzendaritza nagusi honek.

Adierazi behar da, halaber, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari ez zaiola enplegu aniztasunari buruzko inolako informaziorik helarazi Gizarte Segurantzatik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

Galdera, Tokiko Polizia daukaten toki-entitateek segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuari igorri beharreko informazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tokiko Polizia daukaten toki-entitateek segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuari igorri beharreko informazioari buruzkoa. Galdera 2022ko otsailaren 11ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin duen galderaren bidez (PES-00039) honako informazio hau eskatu zaio Nafarroako Gobernuari:

1.- Azken 10 urteotan, tokiko polizia duten zenbat toki entitatek igorri diote segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuari aurreko urtean emandako zerbitzuen oroitidazkia?

Azken hamar urteotan zazpi entitatek aurkeztu dituzte urteko oroitidazkiak. Azkena 2020. urtean aurkeztu da, eta Azagrako Udaltzaingoari dago-kio.

2.- Azken 10 urteotan, tokiko polizia duten zenbat toki entitatek igorri dizkiote segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuari delituen, hutsegiteen eta denetarik gorabeheren erregistro-datuak?

Informazio hori urtero aurkezten den oroitidazkian jasotzen denez, erantzuna lehen galderari emandakoaren berdina da.

3.- Azken 10 urteotan, tokiko polizia duten zenbat toki entitatek igorri dizkiote segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuari giza baliabide eta baliabide materialen dotazioak?

Era berean, informazio hori urtero aurkezten den oroitidazkian jasotzen da, eta erantzuna lehen galderari emandakoaren berdina da.

Dena dela, datu horiek 2020. urtean eguneratu dira azken aldiz, eta eguneratze horretan Nafarroako udaltzaingo guztiak sartu dira.

4.- Azken 3 urteotan, tokiko polizia duten zenbat toki entitatek igorri diote Foruzaingoari komunikazio bat, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen 23.1.h) artikuluan ezarritakoaren arabera egindako jarduketak direla-eta?

Adierazi beharra dago araudian eskatutako datuak Poliziako Informazio Sistema (SIP) izeneko tresnan jasotzen direla.

- Kontsulta egiteko eta informazioa bilatzeko aplikazioa da, polizia ikerketarako garrantzia duen informazioaren iturrietan bilaketak egiteko erabiltzen dena, hainbat bilaketa-irizpideren arabera.

- Salaketak eta espedienteak erregistratzeko ere erabiltzen da, eta herritarrak salaketaren edukiarekin aurkeztuko duen agiria automatikoki sortzeko, bai eta, hala behar denean, salaketa telematikoki jakinarazteko ere organo judizial egokiari eta Foruzaingoari, delitua iker dadin.

Nafarroako udaltzaingo guztien eskura dago. Hori esanda, SIP aplikazioa erabili duten eta, beraz, datuak helarazi dituzten entitateak Nafarroako udaltzaingo guztiak dira.

5.- Zehazki zer toki entitatek ez dituzte bete – eta zenbateraino – azken 10 urteotan Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legearen 23.6 artikuluan eta Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru legearen 1.h) apartatuari dagokionez 23.2 artikuluan ezarritako betekizunak?

Lehendabizi, kontuan hartu behar dira honako ohar hauek, aurkeztutako oroitidazkiei dagokienez desoreka hori konpentsatzera jotzen dutenak:

Lankidetzaz zabal batek, ohikoa den bezala, entitate guztiekiko harreman estuen bitartez, aukera eman du dauden beharrezkoak ezagutzeko eta, horrenbestez, konponbideak edo bitartekoak ematen saiatzeko (adibidez, talkieak, etilometroak eta horrelako ekipamenduak maileguan emanez, edota zerbitzuak ematen lagunduz).

Bestalde, 23/2018 Foru Legearen 1.h) apartatuari dagokionez informazioa igortzeko kontuaz, hau esan behar da: litekeena da gertatutako aldaketa teknologikoen eta egiturazkoen hasiera batean zaildu izana informazio hori segurtasun eta pribatasun bermearekin helaraztea, baina

honezkero, aldaketa horiek direla medio, aplikazioaren erabilera eta integrazio hobea lortu dute udaltzaingoek.

6.- Segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuak zer neurri hartu du betekizunak bete ez dituzten toki entitateek informazioa igor diezaieten departamentuari berari nahiz Foruzaingoari?

Etengabeko hobekuntza prozesu gisa, toki entitateekin jarduketan protokoloak egiten ari dira, urteko oroitidazkiaren datuak igortzeko bitarteko bizkorrak ezar daitezzen, eta, batez ere, Poliziako Informazio Sistema (SIP) ongi erabil dadin.

Azken batean, helburua da jarduketa proaktiboetan aurrera egitea zerbitzuaren kalitatea hobez

tze aldera, polizietako eta erakundeetako intereseko taldeen lankidetzak koordinatuaren bitartez, eta horren erakusgarri da Foruzaingoaren 2020-2023 aldirako Plan Estrategikoaren Proiektua praktikan jarri izana ("P.2.2.1. Lankidetzak esparruen definizioa eta hedapena".)

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2022ko martxoaren 15ean

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apestegui

Galdera, Kideak programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Kideak programari buruz Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2022ko otsailaren 11ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22/PES-00041). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

1.- Kideak programaren barruan 50 plaza daude beteta; horietatik 15 dira A modalitatekoak (ostaturik gabe) eta 35 dira B modalitatekoak (ostatu eta guzti).

2.- Inor ere ez dago programan sartzeko zain.

Badago itzarote-zerrenda, eta itzarote-zerrendako pertsonetako batzuei deribazioaren unean elkarrizketa egin zaie eta programarako egokitasuna baloratu. Beste batzuk haiekin harre-

manetan jarri zain daude, hasierako elkarrizketa egiteko eta intentsitate txikiko borondatezko programa honetarako egokitasunaren balorazioa egiteko.

Oraindik haiekin harremanetan jarri zain dauden pertsonak begirune kontu batengatik daude zain, itxaropen ustelik izan ez dezaten, programatik irteteko mugikortasuna apala baita. Izan ere, programan sartzen direnek batez beste urtebete irauten dute bertan, eta urriaren hasieratik beteta daude eskainitako plaza guztiak.

Behin 50 plazak beteta, mugimendu bakarrak dira programa garaia baino lehen uzten duten pertsonen irteerak eta prozesuaren helburuak lortu dituztenen irteerak.

Programaren barnean banakako prozesuek eskatzen duten mugikortasuna zaila da une hauetan:

Gaur egun B modalitatean (ostatu eta guzti) dauden 9 pertsona, beren banakako prozesuaren garapenagatik, A modalitateara aldatu behar lirateke (ostaturik gabekora). Haien prozesuak eskatzen du modalitatez alda daitezela A modalitateko plaza bat hutsik geratu bezain laster. Horrek erraztuko lieke beren autonomiara eta ahalduntzera bideratutako gaitasun positiboak eta egokiak garatzen jarraitzea, helduaroko bizimodurako trantsizioan behar bezala gaitu daitezzen.

Programako beste bi pertsona, aldiz, A modalitatean daude (ostaturik gabe), baina, beren egoera eta errealitatea direla eta, laguntza intentsiboagoa eta osoagoa behar dute. Beraz, haien errealiterako eta prozesurako egokia litzateke B modalitateko (ostatudunera) igaro ahal izatea B modalitateko plaza bat hutsik geratu bezain laster.

3.- Programako itxarote-zerrendei dagokienez, esan behar da 22 pertsona daudela bertara deribatutakoak. Horietatik 16 pertsona B modalitatekoak dira (ostatuarekin) eta 6 pertsona A modalitatekoak (ostaturik gabe).

Kontuan izan behar da ez direla deribatutako pertsona guztiak sartuko programara. Programara sartzerakoan ez zaizkielako betetzen beren itxaropenak, edo behar duten laguntzaren eta arretaren intentsitatea eta/edo espezifikotasuna programakoez bestelakoak direlako.

4.- Urriaren hasieratik beteta daude programan eskainitako 50 plazak, bai A modalitatean bai B modalitatean.

Programa ez dago itxita. Deribazioak jasotzen jarraitzen du, mugikortasuna txikia izan arren. Plaza bat husten den unean prozesu bakoitzari dagokion modalitate aldaketa egin ahal izatea da helburua, eta, halaber, deribatutako pertsona gehiago programara sartzea.

5.- Plazen kopurua 2022an handitzeari dagokionez, adierazi behar dugu Kideak programa pilotu esperimentalala dela, duela soilik 8 hilabete abiatu dena. Beraz, funtzionamendu aldi luzeagoa behar dugu hura baloratu ahal izateko eta aldaketak erabakitzeke, esaterako, plazen kopuruan edo beste alderdi tekniko eta metodologiko batzuetan. Oraingoz, 2022an ez dago aldaketarik aurreikusita.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko martxoaren 15ean

Migrazio Politiketako eta Justiziako konseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Oltza Zendea eta Ollaranen zuntz optikoa hedatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Oltza Zendea eta Ollaranen zuntz optikoa hedatzeari buruzkoa. Galdera 2022ko otsailaren 25eko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Oltza Zendea eta Ollaranen zuntz optikoa hedatzeari buruz (10-22/PES-00042). Hona Nafarroako Gobernuako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Estatu laguntzen araudian, NGA (Next Generation Access) eremu zuritzat definitzen dira belaunaldi berriko banda zabaleko sareen estaldurarik ez dutenak, ezta 3 urteko epean operadoreen batek estaldura jartzeko aurreikuspenik ere, inbertsio plan sinesgarrietan oinarrituta.

Araudi horretan NGA eremu griztzat definitzen dira operadore bakarra dutenak belaunaldi berriko banda zabaleko estaldura ematen diena edo 3 urteko epean hornidura horretarako aurreikuspenak dituenak.

Telekomunikazioen eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkaritzak urtero informazio xehakatu biltzen du Espainian diharduten operadoreek eskainitako banda zabaleko estaldurari buruz, ekainaren 5eko 462/2015 Errege Dekretuaren 2. artikulua aplikatuz (dekretu horrek administrazio publikoen arteko koordinaziorako tresnak eta prozedurak arautzen ditu, laguntza publikoak eman

daitezzen informazioaren gizartea bultzatzeko, banda zabaleko sareen eskaintza eta eskuragarritasuna sustatuz). Informazio hori biltzeko prozedura Telekomunikazioei buruzko maiatzaren 9ko 9/2014 Legearen 10.1 artikuluan ezarritakoa da.

Operadoreek egoeraz eta 3 urterako aurreikuspenez ematen duten informazioa ikusita, eremu zuriak edo eremu grisak izateko baldintzak betetzen dituzten eremuak identifikatzen

dira, hasierako zerrenda egiten da eta jendaueran jartzen da, informazioa zuzena eta osoa dela egiaztatzeko. Alegazioak ebatzi ondoren, "NGA eremu zuriak" eta "NGA eremu grisak" izanen diren eremuen behin betiko zerrenda egiten da. Aurten emanen diren laguntzak eremu horietarako izanen dira.

Eremu zurien eta grisen azken zerrenda 2021eko uztailaren 21ean argitaratu zuen Ekonomia Gaietako eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioak. Beraren arabera, Oltza Zendeako herri guztiak eta Anotz, Beasoain eta Egillor izan ezik Ollarango herri guztiak beltz deklaratu ditu operadoreen batek, hau da, operadoreen batek adierazi du 100 Mb/s-tik gorako NGA zerbitzua ematen diela.

Beraz, hiru herri horiek bakarrik jasotzen ahal dituzte zuntz optikoa hedatzeko laguntza publikoak, eta PEBA-UNICO21 laguntzak adjudikatu zaizkion proiektuaren barruan daude. Proiektu horren bidez 300 Mb/s-tik gorako banda zabaleko zerbitzuak hedatuko dira.

Laguntza horiek zuzenean jasoko ditu adjudikazioa duen operadoreak.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2022ko martxoaren 18an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

Galdera, “Girando por Navarra/Bira Nafarroan Barna” programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin “Girando por Navarra/Bira Nafarroan Barna” programari buruz Maiorga Ramírez Erro jaunak egingako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2022ko otsailaren 25eko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22/PES-00043) Girando por Navarra/Bira Nafarroan Barna programari buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak ematen duen informazioa:

Girando por Navarra / Bira Nafarroan Barna programa Vianako Printzea Erakundea – Kultura Zuzendaritza Nagusiak sustatutako programa bat da, 2021ean sortua, zuzeneko musika sustatzeko eta, zehazkiago, talde eta artista hasi berriei laguntzeko xedez. Kultur etxea edota espazio eszenikoa duten udalekin lankidetzan gauzatzen da. Izan ere, emanaldien egutegia batez ere udazkenekoa da (2022ko edizioan udaberriko emanaldi batzuk gehitu dira). Hilabete horietan

eguraldiak ez du ez baldintza egokirik ez segurtasunik eskaintzen horrelako ekitaldiak aire zabaleko eremuetan egiteko; udan bai, egin daitezke kanpoan, eta orduantxe garatzen da Kultur programa, Nafarroako herrietan musika emanaldiak eskaintzen dituen aire zabalean.

Gainera, Bira Nafarroan Barna programa zuzeneko musika sustatzeko akuilu gisa sortu da, Nafarroako lurralde osoan aretoen zirkuitua sortzeko ahaleginean.

Programak premisa horien gainean garatuko du bigarren edizioa 2022an, iaztik erabiltzen duen metodologia indartuz. Programaren abiapuntu izan da www.navarralivemusic.com webgunean izen emandako talde eta artisten aurretiazko hautaketa bat, egina “sortzen ari diren” etiketa zentzurik zabalenean harturik, halako moldez non estilo mordera aintzat hartzen den, trap eta rocketik flamenkoraino eta poperaino. Hautaketa hori helarazten zaie programako emanaldiren bat herrira ekarri nahi duten udalei, eta azkenean haiek hautatzen dute herrian arituko den taldea edo artista, bai eta emanaldiaren eguna ere.

Hori guztia jakinarazi ahal dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko martxoaren 18an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Orkestra Sinfonikoari buruz Carlos Mena Blasco jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2022ko otsailaren 25eko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

PSN/PSOE talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22/PES-00045) Nafarroako Orkestra Sinfonikoari buruz. Hona Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

– Kontseilari honek bi bilera egin ditu Baluarte Fundazioko enpresa batzordearekin, lehenbizikoa 2020ko urtarrilaren 20an eta bigarrena 2021eko abenduaren 9an. Hona Baluarte Fundazioaren zuzendaritza-kudeatzailetzaren bileren zerrenda:

2020ko apirila:

Apirilaren 3an, 12:00etan

Apirilaren 8an, 12:00etan

Apirilaren 17an, 12:00etan

Mail, apirilaren 21ean

Apirilaren 24an, 12:00etan

2020ko maiatza

Maiatzaren 11n, 12:00etan

Maiatzaren 13an, 11:00etan

Maiatzaren 21ean, 12:00etan

Maiatzaren 28an, 12:00etan

2020ko ekaina

Ekainaren 11n, 11:00etan

Ekainaren 17an, 11:00etan

2020ko iraila

Irailaren 7an

2020ko abendua

Abenduaren 10ean

2021eko otsaila

Otsailaren 18an

Otsailaren 22an

2021eko martxoa

Martxoaren 31n

2021eko maiatza

Maiatzaren 20an (batzorde berria)

2021eko ekaina

Ekainaren 21ean

2021eko urria

Urriaren 20an (batzorde artistikoa eta enpresa batzordea)

2021eko abendua

Abenduaren 20an

2022ko otsaila

2022ko otsailaren 3an

Zuzendaritza-kudeatzailetzaren eta batzordearen arteko bilerak honako hauek izan dira:

2019ko abenduaren 5ean

2020ko otsailaren 3an

2020ko apirilaren 24an

2020ko apirilaren 27an

2020ko uztailaren 1ean (egun horretatik aurrera titularra ez da bileretan izan)

2020ko urriaren 16an

2020ko abenduaren 2an

2021eko irailaren 3an

2021eko irailaren 23an (bideokonferentzia)

2021eko urriaren 19an

2021eko azaroaren 22an (bideokonferentzia)

2021eko abenduaren 2an (bideokonferentzia)

2022ko urtarrilaren 19an (bideokonferentzia)

– Baluarte Fundazioaren hitzarmen kolektiboa hemen kontsultatzen ahal da:

Iragarkia - Nafarroako Aldizkari Ofiziala

– Ez dago enpresa- eta laneko arriskuen prebentzio-batzordeak kudeatzailetzari helarazita-ko txosten ofizialik Barañaingo Auditorioak en-

tseguetarako areto izateko dituen gabeziak xehakutzen dituenik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko martxoaren 18an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

Galdera, Administrazioan telelana arautzeko foru dekretuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Administrazioan telelana arautzeko foru dekretuari buruz Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egingako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2022ko otsailaren 25eko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00046); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

– Noiz onetsiko du Nafarroako Gobernuak Administrazioan telelana arautzeko foru dekretua?

Dagoeneko amaitu da aipatu foru dekretuaren zirriborroaren negoziazio kolektiboaren fasea, eta hasi dira prestatzen Nafarroako Gobernuari aurkeztu beharreko oroitidazkiak eta gainerako dokumentazioa, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kontseiluari igortzea onar dezan eta azken horrek aginduzko txostena egin dezan.

– Zer dela-eta atzeratu da foru dekretuaren onespena?

Hasiera batean Mahai Orokorrari aurkeztu zitzaion, langileak ordezkatzen dituzten sindikatu-

kin negoziatzeko. Harrezkero negoziazioa egin da, eta aldi berean Europako funtsak lortzeko proiektu bat aurkeztu da, telelanean aritzen diren langileen baldintzak hobetuko dituzten ekipamendu informatikoak finantzatu ahal izateko; eta, finantzaketa hori lortu ondoren, testua hitzartu da Mahai Orokorrean.

– Dekretuaren testuan jaso al dira sindikatuen ordezkariak eginiko ekarpenak? Hala bada, zer ekarpen jaso dira?

Sindikatuaren ekarpen batzuk testuan jaso dira eta beste batzuk baztertu egin dira. Horrela landu da pixkanaka testuaren eduki zehatza, negoziazioan aurrera egin ahala. Jaso diren ekarpenei dagokienez, ez dago espedientearen horri buruzko txostenik, eskatutako informazioa ematen duenik.

– Zer baldintzatan arautuko da telelana?

Nafarroako Gobernuak ez du oraindik onetsi telelana arautuko duen behin betiko testua. Une honetan dugun zirriborroa sindikatuakiko negoziatuz ateratako testua da, eta baliteke aldaketaren bat izatea Nafarroako Kontseiluak egingen duen irizpenaren arabera eta esku hartzen duten gainerako eragileek egin ditzaketan ekarpenen arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko martxoaren 29an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

Galdera, Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duen maiatzaren 10eko 8/2021 Foru Legeak ukitzen dituen abeltzaintzako instalazioen eskariei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duen maiatzaren 10eko 8/2021 Foru Legeak ukitzen dituen abeltzaintzako instalazioen eskariei buruzkoa. Galdera 2022ko otsailaren 25eko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikia dagoen foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duen maiatzaren 10eko 8/2021 Foru Legeak ukitzen dituen abeltzaintzako instalazioen eskariei buruz (PES-00047). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Maiatzaren 10eko 8/2021 Foru Legearen bidez aldatu egin da Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea eta hirugarren xedapen iragankorra gehitu zaio. Hona hemen testua:

«Hirugarren xedapen iragankorra. Etetea.

1. 2022ko maiatzaren 30era arte ez da eskabiderik onartuko, ez eta abeltzaintza-baimenik emanen ere, azienda larriko 1.250 unitate baino gehiagoko edukiera duten behien abeltzaintza-ustiategiak jartzeko.

2. Halaber, ez da eskabide berririk onartuko, ez eta baimen berririk emanen ere, jada badau-

den behien abeltzaintza-ustiategiak handitzeko, baldin eta zabalkundearen emaitza azienda larriko 1.250 unitate baino gehiagoko ustiategia izanen bada».

Foru lege horrek, bere azken xedapenak dioen bezala, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartu zuen indarra. 2021eko maiatzaren 20ko NAO-n argitaratu zen, 117. zenbakian.

Beraz, arauak 2021eko maiatzaren 21ean hartu zuenez indarra, hirugarren xedapen iragankorra egun horretatik aurrera aurkeztutako eskabideei aplikatu behar zaie.

Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza Nagusiari kontsulta egin zaio, eta adierazi du 2021eko maiatzaren 21etik gaur arte (2022ko martxoaren 15era arte) Abeltzaintza Zerbitzuan ez dela jaso azienda larriko 1.250 unitate baino gehiagoko behi-ustiategien gaineko inolako txosten-eskaerarik. Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak adierazi du ez duela jaso ezaugarri horiek dituzten behi-ustiategien gaineko baimen-eskaerarik, ez eta ingurumen txostena egiteko eskaerarik ere.

Era berean, ez zen horrelako eskaerarik aurkeztu martxoaren 20ko 31/2019 Foru Dekretuak indarra hartu zuen egunetik (2019ko apirilaren 27a) 2021eko maiatzaren 21era bitartean. Dekretu horren bidez, abeltzaintzako ustiategiek eta horien instalazioek Nafarroako Foru Komunitatean bete behar dituzten baldintza higieniko-sanitarioak, animalien ongizatekoak eta antolamendu zooteknikokoak ezartzen dira.

Iruñean, 2022ko martxoaren 25ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

Galdera, Iruñeko espetxean mediku eta erizain berariazkoek duten arreta-ordutegiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iruñeko espetxean mediku eta erizain berariazkoek duten arreta-ordutegiari buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00048), zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu:

“2022ko otsailaren 28an, zein da Iruñeko espetxeari arreta emateko mediku eta erizain berariazkoen arreta presentzialeko eta lokalizatuko ordutegia?

Izan al da aldaketarik Nafarroako Gobernuak espetxe-osasungintzari buruzko eskumena bere gain hartu zuenetik edo bere horretan jarraitzen du?

Nafarroako Gobernuak ba al du aldaketarik egiteko asmorik? Hala bada, zer aldaketa eta noiz?”. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Mediku eta erizainek arreta presentzialeko eta lokalizatuko ordutegi hau dute:

– Medikuntza:

- Lanegunetan:

Presentziala: 07:40 - 21:40.

Lokalizatua: 21:40 - 08:00.

- Asteburu eta jaiegunetan:

Lokalizatua: 24 ordu.

– Erizaintza:

- Lanegunetan:

Presentziala: 07:40 - 21:40.

Lokalizatua: 21:40 - 08:00.

- Asteburu eta jaiegunetan:

Presentziala: 09:00 - 11:30 eta 20:00 - 21:00.

Lokalizatua: 24 orduetatik gainerakoak.

– Erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikaria (EZLT):

- Lanegunetan:

Presentziala: 07:40 - 15:20.

Izan al da aldaketarik Nafarroako Gobernuak espetxe-osasungintzari buruzko eskumena bere gain hartu zuenetik edo bere horretan jarraitzen du?

Bere horretan jarraitzen du.

Nafarroako Gobernuak ba al du aldaketarik egiteko asmorik? Hala bada, zer aldaketa eta noiz?

Ez dago aurreikusirik epe laburrean inolako aldaketarik egitea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2022ko martxoaren 30ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, psikiatra batek, psikologo batek eta osasun mentaleko erizain espezialista batek osatutako talde bat Iruñeko espetxeko osasun arretara gehitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, psikiatra batek, psikologo batek eta osasun mentaleko erizain espezialista batek osatutako talde bat Iruñeko espetxeko osasun arretara gehitzeari buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00049), zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu:

«Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordean iragarri zuen psikiatra batek, psikologo batek eta osasun mentaleko erizain espezialista batek osatutako talde bat gehituko dela Iruñeko espetxeko osasun arretara.

Dagoeneko gehitu al dira? Hala ez bada, noizko aurreikusten da gehitzea?

Lehendik ere espetxean arreta ematen zuen psikiatraz ari al zara? Hala bada, zehaztu lehena go zuen arreta ordutegia eta proposaturiko aldaketaren ondorengoa.

2022ko otsailaren 28an, zein da Iruñeko espetxean osasun mentaleko arreta ematen duten profesionalen arreta-ordutegia? Izan al da aldaketarik Nafarroako Gobernuak espetxe-osasungintzari buruzko eskumena bere gain hartu zuenetik edo bere horretan jarraitzen du?»

Hona hemen Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Espetxean aritzeko osasun mentaleko talde bat eratzea helburu, 2021eko martxoaren 7an psikologo kliniko bat eta osasun mentaleko erizain espezialista bat kontratatu dira.

Gaur egun arreta psikiatrikoari eusten zaio, Buztintxuriko Osasun Mentaleko Zentrotik astean goiz batean espetxera joaten den profesionalarekin (astearteetan, 08:00etatik 13:00etara). Uztaile-rako aurreikusita dago haurdunaldiko bajan dagoen psikiatra bat laneratu ahal izatea, lanaldi erdiarekin.

Hiru profesionalak Buztintxuriko Osasun Mentaleko Zentroaren menpean egonen dira, antolaketaren administratiboari dagokionez.

Espetxean arituko dira asteleheneetik ostiralera 08:00etatik 13:00etara, eta gainerako lanaldia Buztintxuriko Osasun Mentaleko Zentroan egiten dute, koordinazio lanetan, familiei arreta ematen, eta jada espetxetik kanpo daudelarik arreta jasotzen jarraitzen duten pertsonak artatzen.

2022ko otsailaren 28an, psikiatriako arreta-ordutegi hau dute espetxean: 08:00-13:00. Zuria Eguneko Ospitaletik astean behin espetxera joaten ziren psikologo klinikoak eta osasun-hezitzaileak espetxean lan egiteari utziko diote. Haiek egiten zuten jarduera goian aipatutako arlo anitzeko taldearen zerbitzu zorroari gehituko zaio.

Talde berria dagoeneko hasi da pertsonak artatzen espetxean. Gaur egun plangintza lanetan ari dira, eta arreta ekintzak abiatzen.

Arlo anitzeko talde horrek espetxean esku hartzeak osasun mentaleko arretaren aldaketa kuantitatibo eta kualitatiboa ekarriko die espetxean dauden pertsonen. Handitu egingen da arreta eskaintza, hau da, zerbitzu zorroa, eta, hori egin ahal izateko, profesionalen lanaldia luzatu egingen da. Izan ere, lanaldi osoa izanen dute asteleheneetik ostiralera. Profesional berrien gaitasun teknikoak aproposak dira espetxeko populazioari berriaz zuzendutako programak garatzeko.

Bestalde, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentutik jakinarazi digutenez, osasun mentaleko taldeak egingen duen lanaren osagarri gisa, departamentu horretako Zigor Betearazpeneko eta Justizia Errestauratiboko Zerbitzuak esku hartuko du: Espetxe Erakunde Zuzendaritza Nagusiarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena dela bide, lanaldi partzialeko gizarte langile bat jarriko du, bere espezialitateko eginkizunetan aritu dadin Gaixo Mentalei Arreta Integrala emateko Programan. Osasuneko eta Justiziako langileen

arteko koordinazioa bikaina da, etengabeko komunikaziorako bideak ezarri baitira, presoei eta haien familiei arreta hobea ematen lagunduko dutenak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2022ko martxoaren 30ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Iruñeko espetxeko presoen osasun arretan izandako eta izanen diren hobekuntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iruñeko espetxeko presoen osasun arretan izandako eta izanen diren hobekuntzei buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00050), zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu:

“Espetxe-osasungintzaren eskumena bere gain hartu ondoren,

Nafarroako Gobernuak egin al du ezer Iruñeko espetxeko presoen osasun arreta hobetzeko? Baiezkoan, zehaztu zer hobekuntza egin den.

Nafarroako Gobernuak osasun arretari buruzko zer hobekuntza jarriko ditu abian Iruñeko espetxean legegintzaldia amaitu baino lehen? Zein da hobekuntza horien kronograma?”. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Antolaketa eta koordinazioa:

• Gomendio sanitarioei buruzko bilerak egitea hileroko Iruñeko espetxean, honako hauen ordezkariekin: Osasun Departamentuaren aldetik, Oina-

rizko Osasun Laguntzako Kudeatzailletza, Eriari Osasun Laguntza emateko Zuzendaritza, NOPLOI Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua eta espetxeko Osasun Zuzendaritza, eta Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren aldetik, Zigor Betearazpeneko eta Justizia Errestauratiboko Zerbitzua.

• Sisteman sartzeari baliza, ekipamendua, materialen eta analitiken garraioa, esterilizazioa, eskariak, O-NOZeko uniformeak eta abar. Horrela, osasun eskualde oinarritzaren ohiko baliabideekin parekatu da.

• Postu informatikoak instalatzea, O-NOZen programa eta aplikazio informatikoetarako sarbidearekin, lanbide profiletako eginkizunak garrantziko.

COVID arreta:

• Egoitza-zentro soziosanitarioetako osasun arretaren unitatetik zentro soziosanitarioei arreta emateko antolaketa sisteman sartzeari eta esparru horretarako egindako dokumentazio osoa eskura jartzea.

• NOPLOIrekin batera, COVIDaren aurrean jarduteko berariazko prozedura bat egitea.

• Aldian behingo txertaketak espetxean bertan.

• Baheketa egitea baliabidearen erabilzaila guztiei, otsaileko agerraldiaren ondoren.

Farmazia:

• Espetxeko Farmazia Zerbitzua Farmaziako Prestazioaren Kudeaketarako Zerbitzuaren menpekoa da. Zerbitzu hori SAP tresna erabiltzen ari da sendagai eskariak kudeatzeko. 2021eko urrian

administrari laguntzaile bat kontratatu zen, Farmazia Zerbitzuan eskariak kudeatzen laguntzeko. Medikuekin eta Farmazia Zerbitzuarekin bilerak egin dira premia funtzionalen berri jakiteko, SAPEkin integraturik dagoen LAMIA programa soziosanitarioa erabili ahal dezaten. Lan hori LAMIako eboluzioen ibilbide-orrian dago.

Aho-hortzen osasuna:

- Espetxean lehendik dituzten gunea eta aparatuak egokitzea. Besaulkia prest jartzea falta da. Bigarren hiru hilekoan aho-hortzen osasuneko zerbitzua Iruñeko espetxera joanen da aho-hortzen osasuneko zerbitzu zorroa eskaintzeko. Hasiera batean, hamabostean behin joatekoak dira.

Prestakuntza:

- Berriazko prestakuntza ekintzak egitea zentro horretako profesionalentzat, ATENEA historia klinikoari eta esparruen arteko deribazioei buruzkoak.

- Baliabide horretako osasun arloko profesionalak Osasun Departamentuaren prestakuntza eskaintzan sartzeari.

- Denboraren mendeko larrialdietan jarduteko berriazko ikastaro bat antolatu da espetxeko funtzionarioentzat eta osasun arloko profesionalentzat. Egiteko dago.

Lan-arriskuen prebentzioa:

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko LAPZk eta baliabidearen LAPZk baterako bisita egitea, batera egin beharreko jarduketak balortzeko.

Osasun mentala:

Espetxean aritzeko osasun mentaleko talde bat eratzeko asmotan, psikologo kliniko bat eta osasun mentaleko erizain espezialista bat kontratatu dira.

Gaur egun arreta psikiatrikoari eusten zaio, Buztintxuriko Osasun Mentaleko Zentrotik asteen goiz batean espetxera joaten den profesionalarekin. Uztaileko aurreikusita dago psikiatra bat laneratu ahal izatea, lanaldi erdiarekin.

Espetxean arituko dira asteleheneetik ostiralera 08:00etatik 13:00etara, eta gainerako lanaldia Buztintxuriko Osasun Mentaleko Zentroan egiten dute, koordinazio lanetan, familiei arreta ematen, eta jada espetxetik kanpo daudelarik arreta jasotzen jarraitzen duten pertsonak artatzen.

Talde berria dagoeneko hasi da pertsonak artatzen espetxean. Gaur egun plangintza lanetan ari dira, eta arreta ekintzak abiatzen.

Arlo anitzeko talde horrek espetxean esku hartzeak osasun mentaleko arretaren aldaketa kuantitatibo eta kualitatiboa ekarriko die espetxean dauden pertsonari. Handitu egingen da arreta eskaintza, hau da, zerbitzu zorroa, eta, hori egin ahal izateko, profesionalen lanaldia luzatu egingen da. Izan ere, lanaldi osoa izanen dute asteleheneetik ostiralera. Profesional berrien gaitasun teknikoak aproposak dira espetxeko populazioari berriaz zuzendutako programak garatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2022ko martxoaren 29an

Osasuneko kontseilaria: Santos Indurain Orduna

Galdera, mediku erretiratuen kontratazioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin mediku erretiratuen kontratazioei buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2022ko martxoaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00051). Hona Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariak galdera horri erantzunez eman beharreko informazioa:

1.- 2021eko udan ordezkapenak egin zituzten mediku erretiratuen kopurua. Zehaztu ordezkapenatarako kontraturiko mediku erretiratu bakoitzaren kontratu-egunak, guztira.

Funtzioa	Antolaketa gakoa	Noiztik	Noiz arte	Egunak
OOLT-KO MEDIKUA	NOZ - Oinarrizko Osasun Laguntza	2021/08/10	Jardunean jarraitzen du	

2.- Pandemiaren seigarren olatuan laguntza-jarduerarako kontraturiko mediku erretiratuen kopurua. Zehaztu pandemiaren seigarren olatuan kontraturiko mediku erretiratu bakoitzaren kontratu-egunak, guztira.

Funtzioa	Antolaketa gakoa	Noiztik	Noiz arte	Egunak
OOLT-KO MEDIKUA	NOZ - Oinarrizko Osasun Laguntza	2021/08/10	Jardunean jarraitzen du	
MEDIKUA	NOZ - Oinarrizko Osasun Laguntza	2021/11/04	2022/02/14	102

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko martxoaren 30ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, bularreko eta koloneko minbizien baheketa-programetan izandako atzerapenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, bularreko eta koloneko minbizien baheketa-programetan izandako atzerapenei buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du, zeinaren bidez informazioa eskatzen baitu "bularreko eta koloneko minbizien baheketa-programetan izandako atzerapenei buruz" (10-22-PES-00052). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

1.- Zenbateko atzerapena du une honetan bularreko minbiziaren baheketa-programak

legegintzaldiaren hasieran aurreikusitako kronogramari dagokionez?

Programako hamabosgarren itzulia 10 hilabete atzerapenarekin amaitu zen, itzuliaren hasieran ezarritako hasierako plangintzari dagokionez.

Egiten ari den itzuliak, hamaseigarrenak, une honetan hiru hilabete inguruko atzerapena du itzuliaren hasieran ezarritako hasierako plangintzari dagokionez.

2.- Zenbateko atzerapena du une honetan koloneko minbiziaren baheketa-programak legegintzaldiaren hasieran aurreikusitako kronogramari dagokionez?

Koloneko eta ondosteko minbiziaren baheketa-programako laugarren itzulia erabat etenda egon zen urtebetez (2020ko martxotik 2021eko martxora arte). Berriz abiatu zen 2021eko martxoan, eta geroztik ez du atzerapen gehiago izan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2022ko martxoaren 30ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialaren patioan eginiko pintadei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Pedro José González Felipe jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialaren patioan eginiko pintadei buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztutako 10-20/PES-00053 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuak gai honen gaineko azalpena eskatu dio Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko zuzendaritzari, eta erantzun hau jaso da:

1. Eraikin hau Calderería kalearen, Compañía plazaren eta Compañía kalearen artean dago, eta Udalarena da.

2. Iruñeko Udalak Nafarroako Gobernuari laga dizkio beheko solairua (Compañía plazatik sartuta) eta eraikineko goiko lau solairuak, Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialerako erabiltzeko.

3. Calderería kaletik sarrera duen solairua (sotoko solairua, Compañía plazako sarreratik begiratuta) Iruñeko Udalak kudeatzen du.

4. Galderan aipatutako pintaden argazkia Calderería kaletik egin da, hau da, pintada horiek Iru-

ñeko Udalak kudeatzen duen eraikineko aldean daude.

5. Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialak bere esku duen eraikin zatia mantentzeaz arduratzen da. Eraikineko alde horretan pintadak egin direnean, ezabatzeko eskatu dio Iruñeko Udalari, eta hark garbiketa egokia egin du.

Hori guztia jakinarazten dizut, jakitun egon zaitezten eta behar diren ondorioak sor ditzan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 11n

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, eutanasia arautzen duen maiatzaren 24ko 3/2021 Lege Organikoak aipatzen duen objektoreen erregistroa sortzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, eutanasia arautzen duen maiatzaren 24ko 3/2021 Lege Organikoak aipatzen duen objektoreen erregistroa sortzeari buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00055), zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu: "Zortzi hilabete baino gehiago pasa dira Eutanasia arautzen duen maiatzaren 24ko 3/2021 Lege Organikoa indarrean sartu zenetik.

Nafarroako Gobernuak sortu al du objektoreen erregistro bat, lege horren 16. artikuluan jasotzen den betebeharrari jarraikiz?". Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Eutanasia arautzen duen martxoaren 24ko 3/2021 Lege Organikoak hau ezartzen du 16. artikuluan (Profesional sanitarioen kontzientzia-

eragozpena): 1. Hiltzeko laguntza emateko zeregina duten profesional sanitarioek kontzientzia-eragozpenerako eskubidea balia dezakete. Hiltzeko laguntza emateko zeregina duen profesional sanitario bakoitzaren erabakia da laguntza hori eman nahi ez izatea edo emateari uko egitea kontzientzia-arrazoiengatik, eta alde zurretik eta idatziz jakinarazi beharko du erabaki hori. 2. Osasun-administrazioek erregistro bat sortuko dute hiltzeko laguntza emateari uko egiten dioten profesional sanitario kontzientzia-eragozleentzat. Erregistro horretan, hiltzeko laguntza emateari uko egindako kontzientzia-eragozleen deklarazioak inskribatuko dira, eta, hala, osasun-administrazioek behar duten informazioa izango dute hiltzeko laguntza emateko orduan laguntza hori egoki kudeatzeko, hori baita erregistroaren xedea. Erregistroak konfidentzialtasun zorrotzaren printzipioa eta datu pertsonalak babesteko araudia bete beharko ditu.

NAFARROA

Nafarroan, erregistro hori dela eta, honako hau ezartzen du uztailaren 29ko 71/2021 Foru Dekretuak, zeinaren bidez sortzen baitira, batetik, Nafarroako Foru Komunitatean hiltzeko laguntza emateko Berme eta Ebaluazio Batzordea, eta bestetik, Hiltzeko laguntza emateko kontzientzia-eragozpenak dituzten profesional sanitarioen Erregistroa (Iragarkia - Nafarroako Aldizkari Ofiziala)

III. KAPITULUA

Hiltzeko laguntza emateko kontzientzia-eragozpenak dituzten profesional sanitarioen Erregistroa

12. artikulua Hiltzeko laguntza emateko kontzientzia-eragozpenak dituzten profesional sanitarioen Erregistroa sortzea

Sortzen da Hiltzeko laguntza emateko kontzientzia-eragozpenak dituzten profesional sanitarioen Erregistroa, bat etorritik Eutanasia arautzen duen 3/2021 Lege Organikoaren 16. artikuluaekin.

13. artikulua Erregistroaren xedea eta helburuak

13.1. Erregistroaren xedea da Nafarroako Foru Komunitateko arlo publikoan zein pribatuan aritzen diren profesional sanitarioen aitortzeak inskribatzea, baldin eta, hiltzeko laguntza emateko prozesu batean zuzenean ukituak izanik, adierazten badute, kontzientzia-arrazoiengatik, uko edo errefusa egiten diotela laguntza emateko prozesu horretan parte hartzeari.

13.2. Erregistroaren helburuak.

Hauek dira erregistroaren helburuak:

1. Hiltzeko laguntza ematearen kontzientzia-eragozpena deklaratzeko duten profesional sanitarioen identifikazio datu pertsonalak biltzea eta zaintzea, bai eta eragozpen hori adierazten eta deklaratzeko duen dokumentua ere.

2. Osasun administrazioari beharrezko informazioa ematea, hiltzeko laguntzaren kudeaketa egokia bermatzeko.

14. artikulua Nor inskriba daitezkeen

Erregistroan inskribatzea eskatzen ahalko dute hiltzeko laguntza ematearekin zuzenean inplikaturik dauden profesional sanitarioek, baldin eta hiltzeko laguntza eskaera gauzatzeko ezinbestekoak diren ekintza beharrezkoak eta zuzenekoak egiten badituzte aurretik edo aldi berean.

15. artikulua Inskriba daitezkeen datuak

Erregistroan honako datu hauek inskribatuko dira:

a) Identifikazio datuak:

- Izen-deiturak.
- Nortasun agiri nazionala edo agiri baliokidea.

b) Lanbideari buruzko datuak:

- Titulazioa.

– Espezialitatea.

– Zerbitzuak ematen dituen zentroa.

– Atxikia dagoen zerbitzua.

c) Kontzientzia-eragozpena eta, kasua bada, atzera-egitea zein egunetan aurkeztu zen.

d) Kontzientzia-eragozpenak dituen ezaugarri bereziak, halakorik bada.

16. artikulua Inskripzio prozedura

1. Kontzientzia-eragozpena Osasun Departamentuaren webgune instituzionalean dagoen eredu normalizatuaren arabera aurkeztuko da.

2. Erregistroaren antolaketa telematikoa izanen da, eta osasun arloan eskumena duen departamentuko titularrak emanen duen foru agindu baten bidez arautuko da.

3. Hiltzeko laguntza emateko kontzientzia-eragozpena inskribatzeko, aldatzeko edo atzera egiteko prozedura arautuko da Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeari jarraikiz.

17. artikulua Erregistroarako sarbidea

Horretarako gaikuntza duten osasun zentroyen kudeatzaileak erregistroan inskribatutako adierazpenetara sartuko dira erregelamenduz ezarritako bezala, konfidentzialtasun berme guztiak errespetatuz eta datu pertsonalak babesteko araudia betez.

18. artikulua Ondorioak eta indarraldia

1. Kontzientzia-eragozpenaren adierazpenak balioa izanen du eskaera behar bezala aurkeztu den unetik, eta hura aurkeztu den unean ematen den agiriak frogagiri gisa balioko du.

2. Kontzientzia-eragozpenaren adierazpena indarrean egonen da profesional interesdunak borondatez eta idatziz uko egiten ez dion bitartean.

3. Ofizios eguneratuko da erregistroa.

19. artikulua Datuen konfidentzialtasuna eta babesa

1. Erregistroa ez da publikoa izanen, eta konfidentzialtasun zorrotzaren printzipioaren mende egonen da.

2. Honako hauetan aurreikusitako guztia aplikatuko da: 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagozkien pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta

95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa; eta aplikatu beharreko gainerako arauak.

Uztailaren 29ko 71/2021 Foru Dekretu hori onetsi ondoren bideragarritasun azterketa bati ekin zitzaion informazio sistemen arloko profesionalekin batera. Helburua zen aplikazio informatikoa antolatzea konfidentzialtasunari eta datuen segurtasunari eta babesari buruzko baldintza guztiak betez.

Abenduan aplikazioa aktibatu zen, O-NOZeko profesionalak Nafarroan eutanasia egiteko kontzientzia-eragozpenerako eskubidea baliatu ahal zezaten, bat etorri zuzailaren 29ko 71/2021 Foru Dekretuaren 16.2 artikuluekin. Izan ere, dekretu horrek ezartzen du erregistroa telematikoa izan dela eta profesional bakoitzak bere eskaera egiten ahal duela modu erraz eta azkarrean, bai eta atzera egin edo bere datuak aldatu ere, hala behar duenean. Horrela, prestazioan esku hartzen duten zerbitzuetako profesional sanitarioek, alegia, medikuek (tartean direla farmazialariak eta psikiatrak), erizainek edo psikologo klinikoek, dagoeneko beren eskubidea balia dezakete honako esteka honen bidez, ziurtagiri digital baliozkoa erabiliz, "Jarraitu" sakatuta:

<https://administracionelectronica.navarra.es/GN.RegistroProfesionales.ProfesionalSanitario/Home.aspx>. Ondoren, goian, eskuineko barran, zabaldu "eutanasia": kontzientzia-eragozpena. Informazio hori guztia Auzolanen dago, Eutanasiaren Legeari buruzko atalean.

Une honetan izapidetze administratiboaren azken fasean dago Hiltzeko laguntza emateko kontzientzia-eragozpenak dituzten profesional sanitarioen Erregistroaren antolaketa arautzen

duen Foru Agindu proiektua. Sarbideak arautzen ditu osasun zentroetako arduradunek jakin dezaten zer eragozle dituzten beren zentroetan, hiltzeko laguntzaren prestazioa antolatu ahal izateko, betiere konfidentzialtasun zorrotzaren pean, eta helburu bakarra izanik hiltzeko laguntzaren kudeaketa egokia bermatzea. Parte-hartze faseari dagozkion txostenak Gobernu Irekian daude.

Foru Agindu proiektua, hiltzeko laguntza emateko kontzientzia-eragozpenak dituzten profesional sanitarioen Erregistroaren antolaketa arautzen duena | Nafarroako Gobernu Irekia

Aplikazio informatikoa prest dago, eta datorren astean hastekoa da informazio fasea, foru aginduaren onespenerari begira, zeina une honetan Nafarroako Kontseiluaren txostenaren zain baitaigo.

Laburbilduz, foru aginduak osasun zentro publikoak arautzen ditu, eta prestazioan esku hartzen duten zerbitzuetako buruak beren taldeetako langileen erregistroetara soilik sartuko direla ezartzen du. Hala, taldearen barnean prestazioa eman dezakeen profesional bat esleitzen ahal du diote pazienteari. Taldeko profesional guztien absentsia edo banakako eragozpena dagoenean soilik ezartzen du hierarkian gorago dagoen bat sartuko dela erregistroetara, beste talde bateko mediku arduradun bat izendatuta prestazioa bermatze aldera.

Osasun zentro pribatuei dagokienez, ezartzen du zentro bakoitzak bere erregistroa izan beharko duela, konfidentzialtasun-araubidearen mende egonen dena, eta datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudia beteko duela.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2022ko martxoaren 30ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, 2005etik 2020ra bitartean Nafarroako administrazio publikoetan izandako langileei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2005etik 2020ra bitartean Nafarroako administrazio publikoetan izandako langileei buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 22ko 118. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (21PES-00326), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

a) Nafarroako administrazio publikoetan 2005etik 2020ra bitartean egondako langile-kopurua, bi urte horiek barne, espresuki adierazita zer administrazioari atxikita zeuden –kasua bada, zer departamentuari–, eta lanpostua zer herritan zegoen.

b) Nafarroako Gobernuak eta haren mendeko erakunde autonomoetako langile-kopurua 2005etik 2020ra bitarte, bi urte horiek barne, departamentuz departamentu, lanpostua zer herritan zegoen adierazita.

c) Nafarroako administrazio publikoetako zenbat langileek jaso zuten euskarazko prestakuntza 2005etik 2020ra bitarte –Euskarabidean, NAPI, euskaltegietan eta NUHEOn Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako matrikulekin–, urtez urte eta mailaz maila zehaztuta, espresuki adierazita zer administrazioari zeuden atxikita eta zer herritan dagoen.

Zure lehen galderari dagokionez, Lehendakari-tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak ez ditu eskatutako datu horiek, Nafarroako Foru Administrazioetik eta haren erakunde autonomoetatik kanpo.

Nafarroako Gobernuak departamentuei eta haren erakunde autonomoei buruzko datuei dago-

kienez, erantsitako dokumentuan ageri da urte bakoitzeko abenduaren 31n, 2006tik 2020ra bitarteko urteetan, lanean ari ziren pertsonen kopurua xehakaturata.

Ezin dizugu eman 2005ari buruzko informazioa, ez dagoelako gordeta informazioa ustiatzeko Tableau tresnan.

Esan behar da, gainera, “Herria” zutabean kasuren batean “Ez da aplikatzen” agertzen dela; horrek esan nahi du une horretan lanpostuak ez zeukala herririk esleituta. Azkenik, komeni da ohartaraztea unitateei buruzko informazioa balio-kidetasunen bidez egokitu dela, egungo departamentuak ager daitezten.

Euskarazko prestakuntzari buruz c) atalean eskatzen duzun informazioari dagokionez, adierazi behar da Euskarabidearen bitartez gauzatzen dela Administrazioari langileek euskara ikasteko prestakuntza-eskaintza osoa. Beraz, argitu behar da NAPIk ez duela horrelako ikastarorik eskaintzen.

NAPIk ematen ditu, bai, ikastaroak euskaraz: libre office, estresari aurre egitea, Internet 2.0 eta abar; baina horrelakoak ez dira galdera honen xede eta ez dugu haiei buruzko daturik emanen.

Hori esanda, komeni da argitzea Nafarroako administrazio publikoetako langileek ez dutela matrikularen ordainketa beren gain hartzen ez Euskarabideak eskainitako prestakuntzan ez NAPIk eskainitakoan. Beraz, zentzu hertsian ezin liteke matrikularako dirulaguntzez hitz egin kasu hauetan.

Euskaltegien kasuan, Euskarabideak bai, ematen die dirulaguntza zentro horietan ikasten duten Nafarroako administrazio publikoetako langileei, 2015. urteaz geroztik.

Kontzeptu horiek argitu ondoren, eskatutako datuak emanen ditugu hurrengo taulan, baina aurretik zehaztu behar dugu Euskarabidea irailaren 10eko 183/2007 Foru Dekretuaren bidez sortu zela eta, beraz, lehen datu eskuragarriak 2008koak direla.

Gainera, garapen teknikoak dela eta, euskara mailen arabera sailkatutako datuak 2015. urtetik aurrera baizik ez daude eskuragarri.

Urtea	Maila	Ikasleak Euskarabidea	Ikasleak diruz lagunduta
2008	(2007-2008)	1306	
2009	(2008-2009)	1553	
2010	(2009-2010)	874	
2011	(2010-2011)	677	
2012	(2011-2012)	506	
2013	(2012-2013)	548	
2014	(2013-2014)	826	
2015	(2014-2015)	897	7
2016	(2015-2016)	843	1
2017	(2016-2017)	878	13
2018	(2017-2018)	1102	17
2019	(2018-2019)	939	20
2020	(2019-2020)	682	11

Euskara maila	2015-2016	2016-2017	2017-2018	2018-2019	2019-2020
A1	213	183	201	163	129
A2	130	117	116	215	158
B1	164	145	229	153	123
B2	113	204	218	236	184
C1	223	229	338	172	88
Guztira	843	878	1102	939	682

Azkenik, Nafarroako Urruneko Hizkuntza Eskola Ofizialaren (NUHEO) euskarazko prestakuntza-
eskaintzari dagokionez, adierazi behar da ez dela
berariazko programarik eskaintzen hizkuntza
horretan prestakuntza jaso nahi duten Nafarroako
administrazio publikoetako langileentzat.

NUHEOn euskarazko prestakuntza eskaintza
bakarra Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitateko
ikasleei zuzendua da, esteka honen bidez ikus
daitekeenez:

<https://eoidna.educacion.navarra.es/eu/euskara/>

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par-
lamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua
xedatua betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 5ean

Lehendakaritzako, Berdintasuneko eta Funtzio
Publikoko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentari-
en eskura dago kudeaketa parlamentarioko Ágora
sisteman).

Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako erizaintzako kontsulta ez-presentzialei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Oinarrizko Osasun Laguntzako erizaintzako kontsulta ez-presentzialei buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-22/PES-00056 galdera aurkeztu du, idatziz erantzutekoa, zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu:

1- "Oinarrizko Osasun Laguntzako erizaintzako kontsulta ez-presentzialen portzentajea, hilabetez xehakaturia, 2021eko urritik 2022ko martxora, Nafarroan.

2- Oinarrizko Osasun Laguntzako erizaintzako kontsulta ez-presentzialen portzentajea, hilabetez xehakaturia, 2021eko urritik 2022ko martxora, osasun eskualde oinarrizko bakoitzean.

Galdera horri dagokionez, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak honako informazio hau ematen dio:

Behar adinako presentzialtasuna finkatzea Osasun Departamentuaren helburu estrategikotako bat da, eta, horren harira, komeni da portzentajeetatik harago begiratu eta argazkia ikuspegi zabalago batetik aztertzea, errealitateari erreparatuz, guztizko artapen eta kontsulta kopuruen bitartez. Izan ere, portzentajeetan ez da kontuan hartzen ekuazioaren izendatzailea, hau da, guztizko kontsulta kopurua, benetan jardueraren neurria erakusten duena. Hala, nahiz eta aurrez aurreko kontsulten kopuru garbia handitu, gerta daiteke portzentajeetan presentzialtasunaren beherakada izatea, seigarren olatuak artapen ez-presentzialen kopurua igoarazi duelako, COVID-19 kasu arinen jarraipena eta laneko bajen kudeaketa direla eta. Beherakada hori ez dator bat artapen kopuruaren benetako igoerarekin.

Erantsitako tauletan, bai eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak darabilen informazioan

ere, presentzialtasunaren goranzko joera ikus daiteke, formatu horretako kontsulten kopurua handituz joan baita estamentu guztietan. Hala, familiako medikuntzan martxoan aurrez aurreko 124.704 kontsulta egin ziren, urrian baino 34.000 gehiago –urrian pandemiaren eragina leunagoa izan zen beste aldi batzuetan baino–, eta urtarrilean –seigarren olatuaren gailurrean– baino 31.000 gehiago. Martxoan erizaintzako aurrez aurreko 121.421 kontsulta egin ziren, urrian baino 5.000 gehiago eta urtarrilean baino 7.000 gehiago. Bestalde, pediatrian martxoan egindako 27.955 kontsultak urrikoak baino 3.500 gehiago eta urtarrilekoak baino 9.000 gehiago dira. Estamentu guztiak batera harturik, martxoan 280.266 kontsulta izan ziren, urrian baino 35.000 gehiago eta urtarrilean baino 50.000 gehiago.

Ildo horretan nabarmentzekoa da sekulako zerbitzu kopuru handia eman dutela Oinarrizko Lehen Laguntzak eta haren estamentuek. Sei milioi hitzordu kudeatu dituzte 2021ean, eta COVID-19ari eusteko lehenbiziko dikea izan dira hurrenez hurreneko olatuetan. Halaber, arreta horretatik banatu ezin den balio garrantzitsu bat irisgarritasunarena da, eta horren datuek ere erakusten dute Nafarroan pazienteen % 75 baino gehiago familiako medikuntzan hitzordua eskatu eta 24 ordu iragan aurretik artatzen dituztela, eta % 92 lau egun baino gutxiago iragan aurretik.

Azaldu den bezala, aurrez aurreko artapenen hazkundea ere progresiboa izaten ari da, eta portzentajeetan beretan, behar den zuhurtziarekin, adierazle horretaz egin dugun oharra aintzat hartuta, egiaztatzen ahal da pixkanakako suspertze hori. Izan ere, lau puntu egin dute gora familiako medikuntzan urritik hona, eta bederatzi eta hamabi puntu seigarren olatu betean geunden abendutik eta urtarriletik hona, hurrenez hurren. Goranzko joera erizaintzako estamentuan ere berretsi da, non martxoan epealdi honetako sabaia jo baitute, abenduan eta urtarrilean baino 15 eta 13 portzentaje-puntu gehiagorekin eta urrian baino bi gehiagorekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatua betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 6an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

(Oharra: Aipatu taula foru parlamentarien eskura dago kudeaketa parlamentarioko Ágora sisteman).

Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako medikuntzako kontsulta ez-presentzialei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Oinarrizko Osasun Laguntzako medikuntzako kontsulta ez-presentzialei buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-22/PES-00057 galdera aurkeztu du, idatziz erantzutekoa, zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu:

1- "Oinarrizko Osasun Laguntzako medikuntzako kontsulta ez-presentzialen portzentajea, hilabetez xehakatu, 2021eko urritik 2022ko martxora, Nafarroan.

2- Oinarrizko Osasun Laguntzako medikuntzako kontsulta ez-presentzialen portzentajea, hilabetez xehakatu, 2021eko urritik 2022ko martxora, osasun eskualde oinarrizko bakoitzean".

Galdera horri dagokionez, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak honako informazio hau ematen dio:

Behar adinako presentzialtasuna finkatzea Osasun Departamentuaren helburu estrategikotako bat da, eta, horren harira, komeni da portzentajeetatik harago begiratu eta argazia ikuspegi zabalago batetik aztertzea, errealitateari erreparatuz, guztizko artapen eta kontsulta kopuruen bitartez. Izan ere, portzentajeetan ez da kon-tuan hartzen ekuazioaren izendatzailea, hau da, guztizko kontsulta kopurua, benetan jardueraren neurria erakusten duena. Hala, nahiz eta aurrez aurreko kontsulten kopuru garbia handitu, gerta daiteke portzentajeetan presentzialtasunaren beherakada izatea, seigarren olatuak artapen ez-presentzialen kopurua igoarazi duelako, COVID-19 kasu arinen jarraipena eta laneko bajen kudeaketa direla eta. Beherakada hori ez dator bat artapen kopuruaren benetako igoerarekin.

Erantsitako tauletan, bai eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak darabilen informazioan ere, presentzialtasunaren goranzko joera

ikus daiteke, formatu horretako kontsulten kopurua handituz joan baita estamentu guztietan. Hala, familiako medikuntzan martxoan aurrez aurreko 124.704 kontsulta egin ziren, urrian baino 34.000 gehiago –urrian pandemiaren eragina leunagoa izan zen beste aldi batzuetan baino–, eta urtarrilean –seigarren olatuaren gailurrean– baino 31.000 gehiago. Martxoan erizaintzako aurrez aurreko 121.421 kontsulta egin ziren, urrian baino 5.000 gehiago eta urtarrilean baino 7.000 gehiago. Bestalde, pediatrian martxoan egindako 27.955 kontsultak urrikoak baino 3.500 gehiago eta urtarrilekoak baino 9.000 gehiago dira. Estamentu guztiak batera harturik, martxoan 280.266 kontsulta izan ziren, urrian baino 35.000 gehiago eta urtarrilean baino 50.000 gehiago.

Ildo horretan nabarmentzekoa da sekulako zerbitzu kopuru handia eman dutela Oinarrizko Lehen Laguntzak eta haren estamentuek. Sei milioi hitzordu kudeatu dituzte 2021ean, eta COVID-19ari eusteko lehenbiziko dikea izan dira hurrenez hurreneko olatuetan. Halaber, arreta horretatik banatu ezin den balio garrantzitsu bat irisgarritasunarena da, eta horren datuek ere erakusten dute Nafarroan pazienteen % 75 baino gehiago familiako medikuntzan hitzordua eskatu eta 24 ordu iragan aurretik artatzen dituztela, eta % 92 lau egun baino gutxiago iragan aurretik.

Azaldu den bezala, aurrez aurreko artapenen hazkundea ere progresiboa izaten ari da, eta portzentajeetan beretan, behar den zuhurtziarekin, adierazle horretaz egin dugun oharra aintzat hartuta, egiaztatzen ahal da pixkanakako suspertze hori. Izan ere, lau puntu egin dute gora familiako medikuntzan urritik hona, eta bederatzi eta hamabi puntu seigarren olatu betearen geunden abendutik eta urtarriletik hona, hurrenez hurren. Goranzko joera erizaintzako estamentuan ere berretsi da, non martxoan epealdi honetako sabaia jo baitute, abenduan eta urtarrilean baino 15 eta 13 portzentaje-puntu gehiagorekin eta urrian baino bi gehiagorekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatua betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

(Oharra: Aipatu taula foru parlamentarien eskura dago kudeaketa parlamentarioko Ágora sisteman).

Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzari buruzko Ekintza Planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Oinarrizko Osasun Laguntzari buruzko Ekintza Planari buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-22/PES-00058 galdera aurkeztu du, idatziz erantzutekoa, zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu: “Zeri deritozue plana “abiatzeko pistola-tiro” hori?”. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Kazetaritzako lerroburuak baloratzen hasi gabe, departamentu honetan ohikoa denez, galderan aipatzen den oinarrizko osasun eskualdeetako zuzendaritza taldeekiko bilera hori une garrantzitsua izan zen Oinarrizko Osasun Laguntzari buruzko Planean, elkarrekin aztertu baikenuen Oinarrizko Osasun Laguntzaren Erronka balidatzeko, abian jartzeko eta lurreratzeko prozesua. Dokumentu horrek jasotzen du departamentuak osasun laguntzaren maila horri bultzada emateko egindako plana, eta, jakin dakizunez, etengabe eguneratzen ari den tresna bizia da.

Barneko bilera izan zen, eta Fuerte Príncipe gazteentzako egoitzan egin zen. Han izan ziren Nafarroako 58 osasun etxeetako zuzendariak, eta planaren inplementazioari ekin zitzaion, hura aurkeztu ondoren lanbide elkargoen, sindikatuen, zientzia elkartearen, Parlamentuaren eta udal erakundearen aurrean. Bileraren formatuak barnean hartu zituen sarrera teorikorako lehenbiziko zatia eta, gero, bigarren saio bat, praktikoa, lantegi eta talde espezifikoei banatua. Saio horretan bildu ziren parte-hartzaileen ekimenak, interakzioak eta proposamenak. Halaber, taldeka aztertu ziren planaren tokian tokiko bideragarritasuna eta operatibotasuna. Planean nabarmentzen diren neurriak dira erizainei eskumen gehiago ematea eta enplegu eskaintza publikoa eta beste bide batzuk erabiliz profesionalak fidelizatzea. Kasu zehatz honetan, maiatzean lanpostuez jabetuko dira familiako medikuntzako 107 profesional eta pediatriako 34, egindako azken oposizioak.

Oinarrizko Osasun Laguntzaren Erronka deritzon dokumentua etengabe eguneratzen den plan bizia da, eta abenduan Parlamentuarekin ere partekatu zen. Helburuak jasotzen ditu, bai eta epe laburreko, ertaineko eta luzeko aurreikuspenak ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatua betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 5ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Iruñeko osasun-etxe batzuetan telefonogune berriak paratzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iruñeko osasun-etxe batzuetan telefonogune berriak paratzeari buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-22/PES-00059 galdera aurkeztu du, idatziz erantzutekoa, zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu:

“Zenbat telefonogune aldatu da osasun etxeetan edo kontsultategietan legegintzaldi honetan, zer zentro zehatzetan eta noiz? Zenbat telefonogune adimentsu jarri dira Iruñeko osasun etxeetan legegintzaldi honetan, zer zentro zehatzetan eta noiz?”. Galdera horri dagokionez, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak informazio hau ematen dio:

Galdera ulertu egiten da, baina ez dira telefonoguneak aldatu direnak. Osasun etxe batzuetan deiak Solidus izeneko call center edo “telefonogune adimentsu” baten bitartez banatzen dira, baina ez dago berariazko telefonogunerik osasun etxe horietan.

Erabiltzaileei zerbitzu hobea emateko, jendearentzako arretarako linea gehiago jarri dira call centerrarekin funtzionatzen duten 27 osasun etxeetan. Fasez fase, 90 linea izatetik egungo 156 lineetara pasatu gara.

Telefonogune horretan sartutako 27 osasun etxeak honako hauek dira:

Altsasu
Antsoain
Azpilagaña
Barañain 1
Barañain 2
Berriozar

Burlata
Buztintxuri
Alde Zaharra
Ermitagaña
Etxabakoitz
Uharte
II. Zabalgunea
Iturrama
Mendillorri
Arrosadia
Mutiloa / Aranguren
Azkoien
Errotxapea
Sanduzelai
Donibane
Sarriguren
Tafalla
Tutera Ekialdea
Txantrea
Atarrabia
Zizur

Linea gehiago jartzeaz gain, prestakuntza eman zaie arduradun administratiboei, eta aurrez berriz emanen da prestakuntza hori. Prestakuntza hori 2021eko ekainean ematen hasi zenetik osasun etxeek asko hobetu dute deien kudeaketa, askoz hobeki ustiatzen dutelako Solidusek ematen duen informazioa. Denbora errealean jasotzen dute informazioa. Horrela hobeki banatzen ahal dute lana, eta, zenbat dei sartzen diren, telefono bidezko arreta areagotzen ahal dute.

Goian azaldu den bezala, aurtengo urterako berriz ere eskatu da arduradun administratibo guztientzako prestakuntza, eta egun beretsuetan emanen da, ahal dela. Ikastaro horrek bi xede ditu. Batetik, arduradun administratiboek tresnari buruzko ezagutza sendoa eta sakona izatea, eta bestetik, dagoeneko tresna erabiltzen ikasi dutenek taldeko beste kide batzuk ikastarora bidali ahal izatea, egoki baderitzote, zentroko profesional gehiagok jakin dezaten telefonogunea erabiltzen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatua betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 6an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzan Internet bidezko hitzordu-eskaera egiteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Oinarrizko Osasun Laguntzan Internet bidezko hitzordu-eskaera egiteari buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-22/PES-00060 galdera aurkeztu du, idatziz erantzutekoa, zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu:

1- "Noiz blokeatu zen hitzordua Internet bidez eskatzeko aukera Oinarrizko Osasun Laguntzan? Une horretan Internet bidezko hitzordu-eskaerarako modalitatearen bat mantendu al zen?"

2- Noiz berreskuratu zen hitzordua Internet bidez eskatzeko aukera erizaintzarekin?"

3- Martxoaren 3an, herritarrek aukerarik al zuten Oinarrizko Osasun Laguntzan medikurako kontsultarako Internet bidez hitzordu-eskaera egiteko? Baiezkoan, noiztik? Ezezkoan, noizko aurreikusten du Osasun Departamentuak aukera hori eskaintzea herritarrei?". Galdera horri dagokionez, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak informazio hau ematen dio:

1- Internet bidezko hitzordua 2020ko martxoaren 13an eten zen, eta ez zen mantendu Internet bidezko hitzorduaren inolako modalitateirik.

2- Erizaintzako hitzordua 2020ko irailaren 28an aktibatu zen.

3- Martxoaren 3an ez zegoen irekita medikurako Internet bidezko hitzordua.

Maiatzeko lehen hamabostaldian irekitzekoa da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatua betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 1ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzarako hezitzaileak kontratatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Oinarrizko Osasun Laguntzarako hezitzaileak kontratatzeari buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00061), zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu: “Zenbat hezitzaile kontratatuko du Osasun Departamentuak Oinarrizko Osasun Laguntzarako, noiz eta zer zentrotan...?”. Hona hemen galdera horri dagokionez Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

Oinarrizko Osasun Laguntzari buruzko Ekintza Planak (‘Oinarrizko Osasun Laguntza Nafarroako

osasun sistemaren ardatz’, 2021eko abendua) honako hau dio 2.3.2 atalean, 21. orrialdean: “Halaber, ekimen pilotu gisa osasun hezkuntzako eta/edo administrazio orokorreko 10 profesional sartuko dira onarpen eta harrera arloan eta aurrez aurreko eta telefono bidezko arretaren arloan”.

Oraindik erabaki gabe dago osasun hezitzaile horien kontratazioa, hainbat mailatan kontsultatzen eta baloratzen ari baita; eta administrazioaren zentzuzko kontratazioa modu eraginkorrean egin da, premia objektiboa detektatu den zentzuetan irisgarritasuna hobetzeko.

Erreferentziako dokumentuan osasun hezitzaileen profila aipatzen zen. Beraz, eginkizun eta eskumenei dagokienez, ez da aplikatzekoa une hauetan, zeren eta, lehenago aipatu den moduan, ez baitago argi horrelako lanbide profilen sarrera beharrezkoa ote den.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatua betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 12an

Osasuneko kontseilaria: Santos Indurain Orduna

Galdera, Iruñeko Osasun Barrutiko Oinarrizko Osasun Laguntzako kudeatzaile berriaren helburu eta proiektuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iruñeko Osasun Barrutiko Oinarrizko Osasun Laguntzako kudeatzaile berriaren helburu eta proiektuei buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-22/PES-00062 galdera aurkeztu du, idatziz erantzuteko, zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu: “Zer helburu eta proiektu proposatzen ditu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Iruñeko Osasun Barrutiko Oinarrizko Osasun Laguntzako kudeatzaile berriak legegintzaldi honetarako?”. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Oinarrizko Osasun Laguntzako kudeatzaile berriak legegintzaldi honetarako helburu nagusia du Oinarrizko Osasun Laguntza indartzea eta osasun sistema publikoa egituratzen duen ardatz gisa abiada berria ematea. Horren isla da ‘Oinarrizko Osasun Laguntzaren erronka’ dokumentua, departamentuaren plana jasotzen duena maila sanitario hori diziplina anitzeko ikuspegi integral batetik indarbertzeko. Dagoeneko Parlamentuari aurkeztu zaio, bai eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko arduradun eta langile, zientzia elkarte, lanbide elkargo, sindikatu, herritar elkarte eta udal entitateei ere, eta iradokizunak eta ekarpenak egiteko aukera eman zaie.

Beste helburu batzuen artean, kudeatzaile berriak apustu egin du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarrizko Osasun Laguntzako profesional guztiak gidatu, motibatu eta babestearen alde, aipatu lan-dokumentuan jaso diren errorei begira.

Langile talde baten liderra izan nahi du herritarren osasuna hobetzeko bidean.

Prebentziorako eta osasunaren sustapenerako ekintzak bultzatzen eta eragiten jarraitu, Oinarrizko Osasun Laguntzaren bidez.

Esku-hartze komunitarioa indartu, elkarlanean jarduteko herritarrekin, elkarteekin eta gizarteko beste eragile batzuekin, gizarte ongizatea areagotzea helburu.

Sinetsita dago “Oinarrizko Osasun Laguntzaren erronka” dokumentuan azaldutako helburuak garatzeko proiektuak lehentasuna izan behar duela legegintzaldiaren amaierara arte.

Azkenik, Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzailetzaren helburuetako bat izanen da Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzako langile guztiak sustengatzea, bai eta haien garapena ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatua betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 6an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Tuterako Osasun Barrutiko kudeatzaile berriaren helburu eta proiektuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako Osasun Barrutiko kudeatzaile berriaren helburu eta proiektuei buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00063), zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu: Zer helburu eta proiektu proposatzen ditu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Tuterako kudeatzaile berriak legegintzaldi honetarako? Hona hemen Nafarroa-

ko Gobernuko Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Tuterako osasun barrutiko Kudeatzailetzaren helburuetakoak dira bere eragin-eremuko pazienteen osasuna hobetzea eta komunitatearen osasuna sustatzea, modu seguruan hala pazienteen-tzat nola profesionalentzat.

Lanean erreferente gisa erabiliko da Nafarroako 2014-2020 Osasun Plana, eta Osasun Departamentuaren plan eta estrategiei jarraituko zaie. Hona horietako batzuk: Oinarrizko Osasun Laguntzarako Estrategia 2018-2022, Osasun Publikorako Plana 2016-2020, Nafarroako Osasun Sistema Publikoa Gizatiartzeko Estrategia, Paziente Kroniko eta Pluripatologikoei Arreta Integratua emateko Nafarroako Estrategia, eta Oinarrizko Osasun Laguntzaren Erronka.

Testuinguru horretan eta erreferentzia horiek guztiak bateratuta, barrutiko Kudeatzailetza berriaren asmoa da Tuterako Osasun Barrutiko 2021-2024 aldirako Plan Estrategikoaren garape-

nean lan egitea. Plan horrek lau ildo estrategiko ditu, zenbait ekintza-ildo zehatzekin. Horien artetik adibide gisa aipatuko ditugu gauzatu beharreko ekintzetako batzuk:

Osasun laguntzako sareak:

Osasunaren sustapena eta gaixotasunaren prebentzioa: osasuna edo bizimodu osasungarriak sustatzeko jarduerak garatzea, hala nola Batu Puntuak programa, eta Erriberako ahalik eta udal-erri gehienetara zabaltzea; umetoki-lepoko bahe-keta programa inplementatzea gure osasun barrutian.

Pertsonari begirako arreta: pazientearen segurtasunerako estrategian aurrera egitea, pazientearen segurtasun taldea indartuz eta Oinarritzko Osasun Laguntzara eta Osasun Mentalera hedatuz; kontsulta eta proba osagarrien eskariari hobeto erantzuteko lan egitea; gizatiartze-helburuak ezartzea arreta-esparruetan eta arretaz bestelakoetan.

Osasun laguntzaren integrazioa: osasun arloko gizarte laneko taldeen eta entitateetako gizarte ongizateko arloen arteko koordinazioa sustatzea, laguntza sare soziosanitarioak sortzeko.

Paziente kroniko eta pluripatologikoak: Paziente Kronikoaren Estrategian sartutako pazienteen sailkapena hobetzea eta loturako erizainen egitekoa indartzea.

Ebazteko ahalmena. Ahalmen diagnostiko eta terapeutikoa handitzea oinarritzko osasun laguntzan (ekografia, kirurgia txikia eta dermatoskopia).

Jasangarritasuna

Efizientzia eta modernizazio teknologikoa: osasun karpeteraren erabilera sustatzea; Auzolanen bitartez aginte koadroak profesionalen artean heda daitezten sustatzea.

Ingurumen jasangarritasuna eta energia-efizientzia: ingurumen irizpideak erabiltzea ekipamendu eta instalazioak erosterakoan.

Preskripzioaren erabilera egokia: hobeto erabiltzea preskripzio medikorako tresnak, hala nola SAPE edo OBSERVA; aurrera egitea kontziliazioan eta medikamentuarekiko atxikimenduan.

Egokitzapen logistikoa: eskabideen kudeaketa hobetu eta sinplifikatzea; hornigai espezifikoen multzo bat edukitzea.

Langile-beharren plangintza: plantillaren neurrien azterketa egitea.

Instalazioak-Teknologia

Egitura fisiko eta teknologikoak berritu eta modernizatzea; ekipamendu berekien eta lagatakoen inbentarioa eguneratuta edukitzea; ekipamenduak berritzeko plana egitea Tuterako osasun barrutirako.

Osasun laguntzako instalazioen eta prozesuen segurtasuna: aurrera egitea medikamentu arrisku-tsuak, biologikoak, produktu kimikoak eta abarrekoeak erabiltzeak dakartzan arriskuei aurrea hartzeko neurrien ezarpenean.

Tuterako Osasun Barrutiko Plan Gidaria: Tuterako Osasun Barrutiko Plan Gidaria amaitzea eta haren hasierako faseak gauza daitezten sustatzea.

Profesionalak

Aliantza estrategikoak: I+G+B Batxilergoko ikerketa proiektuen tutoretzan jarraitzea; Osasun Irratia indartzea, osasun arloko hezkuntzarako tresna gisa; boluntariotza-eremu bat sustatu eta garatzea Gizarte Lanaren Arloaren bidez.

Komunikazioa eta parte hartzea: komunikazio unitatearen eginkizuna indartzea, erakundearen baitan garatzen diren ekintza guztien berri emateko erreferente gisa; arloko langile guztiei zuzendutako asteroko informazio oharren zabalkundeari eustea.

Lanbide-garapena: Erizaintzako unitate-burutzaren lidergoa indartzea; akreditazioa hedatzea, barrutiko beste espezialitate batzuei lotutako irakaskuntza-gailu gisa; lanbide profil berriak sartzeari Oinarritzko Osasun Laguntzaren esparruan (osasun komunitarioko erizainak, psikologoak...)

Ikerketa eta ezagutzaren kudeaketa: elkarlana areagotzea Miguel Servet fundazioarekin, NUPekin eta beste eragile funtsezko eta/edo interes talde batzuekin; WebEx, Acredita eta Ikasgela Birtuala prestakuntza-plataformen inplementazioa sendotzea; urtero errekonozimendu jardunaldi bat egitea, berrikuntzaren eta irakaskuntza eta ikerketaren arloetako proiektu guztien zabalkunderako.

Enpresa segurua eta osasungarria: laneko arriskuen prebentzioa zerbitzuen/unitateen jardueretan txertatzea, laneko arriskuen prebentzioko helburu espezifikoen bitartez; bereziki sentiberak diren langileen babesaren hobetzea (lanpostua egokitu, lekualdatu...).

Kudeaketa aurreratua: sustatzea profesionalak bere egin ditzaten Barrutiaren helburuak, inplikatu daitezten eta parte-hartzean, kudeaketarako autonomian eta konpromisoan oinarritutako kultura beregana dezaten, kudeaketa-itunen ezarpenaren bidez; kanpoan ebaluatzen eta ziurtatzen ahal

diren arauak eta estandarrak ezartzen jarraitzea (Kudeaketa Aurreratuko Eredua, ISO 9001:2015 Erradiologian, Aldakako Hausturaren Prozesua, pazientearen segurtasunaren UNE 179003 ziurtagiria eta IHAN ziurtagiria).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatua betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna
